



Prestazio ekonomikoen titularra izateko, jatorrizko herrialdean baliabide ekonomikorik ez izatearen ziurtagiria aurkezteko eskakizunaz hausnartu behar da

Arartekoaren 1/2020 Gomendio Orokorra,
2020ko maiatzaren 13koa





Arartekoaren 1/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko maiatzaren 13koa.

Prestazio ekonomikoen titularra izateko, jatorrizko herrialdean baliabide ekonomikorik ez izatearen ziurtagiria aurkezteko eskakizunaz hausnartu behar da.

I. SARRERA

Arartekoan kexa asko jaso izan ditugu hainbat atzerritarrek Lanbiden eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udaletan kudeatzen diren prestazio ekonomikoak jasotzeko, jatorrizko herrialdean ondasunik ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkezteko izaten dituzten zailtasunen inguruan.

Ziurtagiri hori atzerritarrei eskatzen zaie, albo batera utzita Euskadin bizitzen daramaten denbora.

Hasieran, ziurtagiria atzerritar guztiei eskatzen zitzairen, baina ondoren, eskakizun hori aldatu egin zen nazionalitate espainiarra eskuratu zuten eta nazioarteko babesa eskatzen zuten pertsonen zegoenez. Kasu bietan, ziurtagiri hori aurkeztu beharretik salbuetsi zituzten pertsona horiek, kontuan hartuz zaila zela jatorrizko herrialdean ziurtagiri hori lortzea.

Espainiar nazionalitatea eskuratu zuten pertsonen zegoenez, kontuan hartu zen jatorrizko nazionalitateari uko egiteak (izapidetze hori egitea beharrezkoa da espainiar nazionalitatea eskuratzean), zaildu egiten duela jatorrizko herrialdeko agintaritzekin harremanetan jarri ahal izatea, salbuetsiz nazionalitate bikoitzeko hitzarmenei atxikita egotea, besteak beste herrialde iberoamerikarrekin gertatu den bezala, edo salbuetsiz baita ere, Espainiarekin lotura berezia izan duten herrialdeak, 11.3 CE. artikuluan xedatutakoen arabera.

Bestalde, agerikoa da nazioarteko babes eskatzaileek ere zailtasunak izaten dituztela jatorrizko herrialdeko agintaritzekin normaltasunez harremanetan jarri ahal izateko.

Bestalde, besteak beste Nigeriatik datozen pertsonen kasuan, Nigerian kokatutako Espainiako enbaxadan ez dutenez dokumentu hori legeztatzen, Lanbidek salbuetsi egingo du prestazioaren eskatzaileek ziurtagiri hori aurkeztu behar izatea, herrialde horretatik etorri diren pertsonak ere egiaztatu egingo direlarik.

Lanbidek, beraz, inguruabar horiek kontuan hartu ditu, eta pertsona horiei, lortzeko ezinezkoa edo oso zaila den dokumentua ez aurkezteko baimena eman die.

Gainerako etorkinek ziurtagiri hori aurkeztu behar dute, hau da, jatorrizko herrialdean ondasun higiezinik edo baliabide ekonomikorik ez dutela egiaztatzen duen agiria. Dokumentu hori eskatzearen oinarria, *per se*, hauxe da: gizartean, orokorrean eztabaida sortzen duen kontua da etorkinek jatorrizko herrialdean ondasun higiezinak edo baliabide ekonomikoak izatea eta era berean, euskal administrazio publikoetan prestazio ekonomikoak eskatzea. Jatorrizko herrialdean ondasunen ziurtagiria eskuratzeko zailtasunak, gizarteko sektore batzuk uste duten ideia horrekin batzen dira, eta bestalde, uste horrek ez du oinarri sendorik gaur egungo migrazio mugimenduei buruzko azterketak eta informazioa ikusirik eta irizpide logikoei edo arrazoizko irizpideei jarraituz. Garrantzitsua da gogoratzea, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioetan (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarrian (EPO) egindako iruzurren ehunekoa % 0,73koa dela, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren arabera (2017.urtea).

Hala ere, nahiz eta hasieran administrazio publiko eskumendunek ez zuten eskatzen jatorrizko herrialdean ondasunik ez izatearen ziurtagiria, une jakin batean, eta hori oinarritzen zuen legezko aldaketarik egin gabe, foru aldundiek, eta ondoren, foru aldundiak ordezkatu zituen kudeaketa organoak, Lanbidek, eta zenbait udalek, agiri hori aurkezteko betebeharra ezarri zuten prestazio ekonomiko guztiak eskatzerako orduan.

Ondoren, gainera, eskaria aurkeztean zenbait betekizun formal bete behar ziren, autentikotasuna bermatze aldera.

Arartekoak hainbatetan gogorarazi du aplikatu beharreko araubidean aurreikusita dagoela prestazio ekonomikoen eskatzaile guztien ondasunak eta baliabide ekonomikoak zenbatu behar direla, eta hori guztia, zehazteko baliabide ekonomiko nahikorik ez izatearen baldintza betetzen duten edo ez, baina hala ere, **Arartekoak gogorarazi zuen, araubide horretan ez dagoela xedatuta hori guztia egiaztatzeko aurkeztu beharreko dokumentu zehatza zein den.**

Administrazio publikoek aplikatu dituzten irizpideak aldatu egin dira urteetan zehar. Hala, hasieran, ziurtagiria ingelesez, frantsesez, alemanez, gaztelaniaz, italieraz edo portugesez igorrita bazegoen, ez zen itzulita aurkeztu behar. Gainerako

hizkuntzetan, zinpeko itzultzaile batek itzulita aurkeztu behar zen agiria. Gainera, hasieran, ez zitzaien agiri hori eskatzen zenbait herrialdeetako pertsoneri, modu frogagarrian zekitenean agiria eskuratzea ezinezkoa zela. Gaur egun, atzerritar guztiei behar bezala egiaztatutako ziurtagiria aurkezteko eskatzen zaie, aurretiaz azaldu ditugun salbuespenezko egoeretan daudenei izan ezik (nazioarteko babes eskatzaileak, espainiar nazionalitatea eskuratu duten pertsonak eta nigeriarrak). Bestalde, udal guztiek ez dute eskatzen ziurtagiri hori aurkezteko gizarte larrialdiko laguntzak jaso ahal izateko.

Adierazi behar da diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskaeretan edo gizarte larrialdiko laguntzen eskaeretan deklarazio bat aurkezten dela, eta horren bitartez adierazten dela baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea, eta deklarazio hori da pertsonen baliabideak eta ondasunak zehazteko agirietako bat. Horrez gain, konpromiso bat ere aurkezten dute eskatzaileek, eta bertan jasotzen da sei hilabeteko epean diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo gizarte larrialdiko laguntzen espedientearen egiaztatutako ziurtagiri bat aurkeztuko dutela, eta horrek, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta gizarte larrialdiko laguntza jasotzea ahalbidetzen du eskaria aurkeztu denetik bi hilabeteko epean, salbuetsiz espedientearen izapidetzean beste agiri batzuk aurkeztu behar izatea, eta horren ondorioz, espedientearen ebazpena atzeratu egiten da.

Arartekoan aurkeztu diren kexak aztertu ondoren, eta herritarrei arreta emateko Arartekoaren bulegoetan egindako bisitetan azaldutakoak aztertu ondoren, Arartekoak eskatzen du agiria aurkezteko derrigortasun horri buruz hausnartzeko, eta araubidean ezarritako betekizunak bestelako bitartekoen bidez egiaztatzea ahalbidetzeko, izan ere, gaur egun eskatzen den agiria lortzeko oso zaila eta garestia da. Arartekoaren iritziz, neurritz kanpokoa da prestazio ekonomikoen eskari guztietan, gizarte larrialdiko laguntzetarako baita ere, eta inguruabar guztietan, administrazio publikoetan eguneratutako agiri hori aurkeztu behar izatea, eta horixe da gomendio orokor honetan zehar aztertuko eta arrazoituko dena.

Arartekoak, espedienteak aztertzean, azpimarratu nahi dituen zenbait kontu aurkitu ditu:

- I. Espedienteetako batean, kexagileak ez zuen berariaz adierazi espainiar nazionalitatea eskuratu zuenik, nahiz eta bere NAN-arekin bere burua identifikatu zuen, eta horrenbestez, gainerako atzerritarrei ematen zaien trataera berdina eman zitzaion. Ondasunen egiaztatutako ziurtagiria ezin izan zuenez aurkeztu, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa kendu zioten, eta ordaindutako prestazio ekonomikoak itzultzeko eskatu zioten, kontuan hartu gabe betekizun hori betetzetik salbuetsita zegoen pertsona bat zela. Arartekoak [gomendio¹](#) bat sortu zuen, eta ez da onartua izan.

¹ Euskadi. Arartekoa. Arartekoaren 2020R-177-19 Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 31koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio bizikidetzaren unitateari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta aitorturiko etxebizitza-prestazio osagarria jasotzeko eskubidea deuseztatzen duen ebazpena berrikus dezala, jatorrizko ondasunen ziurtagiria ez aurkeztu izanagatik ez dagoelako

- Zenbait kasutan, senegaldarrek, frantsesek, britainiarrek edo ginearrek, erakunde honetan jakinarazi dute agintaritzaren eskumendunek ez dizkietela agiri horiek ematen. Hala ere, Lanbideko bulegoetan, atzeritarrei ziurtagiriak aurkezteko eskatzen diete, nahiz eta batzuetan, estatu batzuetako agintaritzek baieztatu izan ezin dituztela agiri horiek eman.
- Espediente askotan, kaltetuek ezin izan dute legeztatutako eta itzulitako agiria aurkeztu. Nazioarteko harremanek eta Espainiak hainbat estaturekin sinatutako hitzarmenek, estatuen arabera, emandako dokumentuak legeztatutako eta benetakotzat jotzeko aukera ezberdinak eskaintzen dituzte. Alor juridiko horretako konplexutasuna handia da erabiltzaileentzat eta herritarrei arreta ematen dieten Lanbideko langileentzat, eta ondorioz, egin beharreko izapidetzeen berri ez dutenez izaten, zalantzak eta akatsak sortu izan dira.
- Zenbait pertsona denbora luzean zehar jatorrizko herrialdetik kanpo egoten dira, eta beraz, harremana galtzen dute eta jada ez dute kontakturik izaten jatorrizko herrialdean agiria izapidetzen lagundu ahalko lieketen pertsonekin.
- Beste kasu batzuetan, prestazio eskatzaileak jatorrizko herrialdeetako administrazio zentroetatik urruti dauden lekuetakoak dira, eta beraz, beraien senideek edo lagunek distantzia handiak ibili behar izaten dituzte izapidetzea egiteko, eta askotan ez dute horretarako baliabiderik izaten.
- Zenbaitetan, jatorrizko herrialdean izapidetzea egitearen kostua gehiegizkoa da eskatzaileentzat, eta sei hilabeteko epea ez da nahikoa izaten hori guztia egiteko, eta kontuan hartu behar da ez dela agiria aurkezteko luzapenik eskaintzen.
- Eskatzaileak zaugarriak dira eta prestakuntza falta zaie administrazio izapidetzeak egiteko, eta ondorioz, askotan, baliozkotzat jotzen ez diren agiriak aurkeztu izan dituzte, eta beraz, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarria kendu izan diete, eta jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatu izan diete (nahiz eta eskatzaileek egiaztatu baliabide ekonomiko nahikorik ez izatearen betekizuna betetzen zutela).
- Udal batek erantzun zuen zinpeko deklarazioa onartzen duela Estatuak ziurtagiririk ematen ez duenean edo enbaxadak ziurtagiria legeztatzen ez duenean, baita ere eskatzaileak gatazkak dauden herrialdeetakoak direnean (halakotzat jotzen ditu Kuba, Venezuela, Nigeria, Siria, Kongo eta Nikaragua). Halakoetan, udalak ondasunen ziurtagiria aurkez dezaten eskatzen du, espainiar nazionalitatea onartua duten ala ez alde batera utzita.
- Beste espediente batean, agiria eman zenetik urtebete ondoren aurkeztu zuen eskatzaileak (besteak beste hasierako eskaria artxibatu zutelako), eta beraz, agiriak baliozkotasuna galdu zuen, iraungitza jo zutelako, eta ondorioz, eguneratutako agiria atxiki behar izan zuen, albo batera utzita interesatuak egiaztatu izana EAEn bizi izan zela aurreko agiria eman zenetik aurrera.

- Zenbaitetan, eskatzaileek aurkeztutako agirietan egiaztatu egiten da herrialde horretako departamendu batean ondasunik ez dutela, adibidez Kolonbian, eta hori, Lanbideren ustez ez da nahikoa, eta estatuko gainerako departamenduetako ziurtagiria aurkezteko eskatzen diete eskatzaileei.
- Beste espediente batzuetan, ziurtagirian adierazten da eskatzaileak ondasun higiezin baten jabeak direla. Etxebizitza bat jabetzan izatean, ezin da diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu etxebizitza hori ohiko etxebizitza ez baldin bada, albo batera utzita balio baxuko higiezina izatea edo bertan bizi izatea ezinezkoa izatea, segurtasunik gabeko leku batean edo gatazka sozialak eta politikoak dauden leku batean kokatuta dagoelako (besteak beste, Venezuelan).

Kexa espedienteak izapidetzean, Arartekoak Lanbideri arazo horren berri eman izan dio. Izan ere, 2017ko diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako laguntza osagarriaren kudeaketa hobetzeko proposamenen txosten-diagnosian honako gogoetak jaso ziren²:

“Jatorrizko herrialdeetan baliabide ekonomikoak dituztenaren ziurtagiriak eskatzea garestia da atzeritarrentzat; izan ere, ziurtagiri horiek eskuratzea zaila da pertsona hori denbora asko daramanean bere herrialdetik kanpo. Faltan botatzen da egokiagoa den legezko oinarri bat edo oro har ezaguna den eskakizun horren eta eskaeraren izapidetzean dokumentuek baliiodunak izateko bete beharreko betekizunen inguruko irizpide bat.

Lanbidek betekizunak betetzen direla kontrolatu behar du; izan ere, eginkizun hori beharrezkoa da prestazioa behar bezala kudeatzeko. Hala ere, batzuetan, eskuratzea zaila den dokumentu zehatz bat eskatzeak, kontuan hartu gabe pertsona horrek prestazioaren titular izateko betekizunak betetzen dituela behar bezala egiaztatzen duten aurkeztutako gainerako dokumentuak, babesetik kanpo uzten ditu beharrian oinarritzkoenekin lotutako gastuak eta gizarteratzeko prozesu baten gastuak ordaintzeko diru-sarrera nahikorik ez dituzten bizikidetzak unitateetako kideak.

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 29.1.l) artikularekin bat etorriz, Lanbidek beste dokumentu batzuk eskatu ahal ditu betekizunak betetzen direla egiaztatzeko. Hala ere, Arartekoaren ustez, ahalmen hori proportzionaltasun printzipioa kontuan hartuz modulatu behar da eta, froga bere osotasunean aztertuz, baliabide ekonomiko nahikoak daudela ezartzera bideratu behar da. Dokumentu bat ezin aurkezteak ez luke eskubidea ematea baldintzatu behar. Helburua da, dokumentu bat aurkeztea ezinezkoa denean, hori ez aurkeztearen ondorioz hain funtsezkoa den eskubidea izatea ez eragozte; izan ere, batzuetan espedientearen inguruabarrak eta dokumentuak aztertuta, pertsonak bizitzeko

² Euskadi. Arartekoa. Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017 [linean]. Vitoria-Gasteiz: Ararteko, 2017. Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf

gutxienekoa bermatzen duten prestazioak jasotzeko eskubidearen titularra izateko beharrezko baldintzak betetzen dituela ondoriozta daiteke.”

Gainera, Arartekoak honako gomendioak egin zituen.

Dokumentazioak onartua izan dadin bete beharreko betekizunak jakinaraztea eta dokumentu batzuek baliabide ekonomikorik ez dagoela egiaztatzeko baliorik ez izateko arrazoiak justifikatzea. (5.)

Aurkeztutako dokumentuak batera balioztatzea, baliabide ekonomiko nahikorik ez dagoela aztertzeko, baita betekizunak betetzen direla aztertzeko ere. (6.)

Nahiz eta hainbat kexa espedienteetan gogoetak azaldu, aurretik gomendioak egin, eta Arartekoaren eta Lanbideren arteko bileretan kontu horiek errepikatu, Lanbidek eta zenbait udalek, prestazio ekonomikoak eskuratzeko oraindik ere jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria eskatzen jarraitzen dute, eta horren guztiaren ondorioz, honako gomendio orokor hau idatzi dugu:

II. GOGOETAK

LEHENENGOA: Esparru juridikoa

Euskal administrazio publikoek **egiaztatu egin behar dute prestazio eskatzaileek baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela**, prestazio ekonomikoen araubidea aplikatuz: [4/2011 Dekretua](#) Gizarte larrialdiko laguntzen urtarrilaren 18koa eta [147/2010 Dekretua](#), diru-sarrerak bermatzeko errentaren maiatzaren 25ekoa.

Gizarte Larrialdiko Laguntzen urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 5.1. artikulua e) eta f) atalak:

“e) Dekretu honetako 3. artikuluan jasotako gastu espezifikoei aurre egiteko behar beste baliabide ez izatea, baldin eta horrek haien bizikidetz-unitateko kideei eragiten badie; hala, ez dagoela behar beste baliabide ulertuko da ondoren azaltzen diren baldintzak betetzen direnean:

1) Azken urtean edo prestazioek helburu duten gastuekin lotzen den edo lotuko den denboraldian, errendimenduak (Dekretu honetako 13. artikuluan ezartzen denaren arabera erabakiak) etxebizitza-unitateko kide kopuruaren arabera legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren gehieneko zenbatekoa baino % 150 handiagoak izatea. Aurrekoa bazter utzi gabe, kontuan hartuko dira, halaber, eskatzailea bizi den etxebizitza edo bizitoki berean bizi diren gainerako kideek jaso ditzaketen prestazioen errendimenduak.

2) *Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko [abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.2 artikuluan](#) aurreikusitakoaren arabera, bizikidetza-unitatetzat har litezkeen pertsonak aipatutako legearen 9.1.b artikuluan aipatutako loturetakoren bat duten pertsonekin etxebizitza edo bizitoki berean bizi badira, eta pertsona horiek guztiak, dagokion denboraldirako, beren errendimenduak badituzte eta errendimendu horien balioa dagokion gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren gehieneko zenbatekoa baino hiru aldiz txikiagoa bada, baldin eta pertsona horiek ez badute inolako errekurtsorik, betiere adierazitako artikuluan aipatzen diren loturengatik elkarrekin lotuta dauden pertsona guztiak kontuan hartuta.*

f) *Batere baliabiderik izan ezean eta bizikide (aipatutako loturen bidezko harremana dutenak) kopuruaren arabera legokiekeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren urteko zenbatekoaren lau halako baino txikiagoa izatea beren ondarea. Ondarearen balioa diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren III. kapituluaren 4. atalean ezarritakoarekin bat etorritik zehaztuko da.*

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.3. artikulua arabera:

“3. Nahikoa baliabiderik ez edukitzea. Horrelako baliabiderik ez daukala iritziko da, honako baldintza hauek guztiak betetzen direnean:

a) *Bizikidetza-unitateko kide-kopuruaren eta bizikidetza-unitate motaren arabera egoki dakiekeen Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko Errentaren hileko zenbatekoaren azpitik dauden hileko diru-sarrera edo etekin konputagarriak edukitzea.*

b) *Inolako ondasun higiezinik ez edukitzea, honako salbuespen hauekin:*

– *Ohiko etxebizitza, horrek aparteko balioa duenean salbu, 24.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera;*

– *Bizikidetza-unitatearen diru-sarreraren iturria diren norberaren konturako jarduera edo jarduerak egiteko erabiltzen diren higiezinak edo higiezin horien zatiak, 24.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.*

c) *Dauzkaten dirua, tituluak, baloreak, ibilgailuak eta, oro har, dekretu honetako III. kapituluko 4. sekzioan aipatutako beste edozein ondasun higikor gehienez ere honen zenbatekoak izatea: erabateko baliabiderik ezaren kasuan bizikidetza-unitateko kideen guztizko kopuruaren arabera legokiekeen Diru-sarrerak bermatzeko errentaren urteko zenbatekoaren lau halako.*

d) Dekretu honetako 22. artikuluan ezarritako nahikoa baliabiderik ez edukitzeko kasuren batean ez egotea.

Diru-sarrerak edo etekinak eta ondarea zehazteko, dekretu honen III. kapituluko 1., 2. eta 3. ataletan ezarritakoa hartuko da kontuan.

Baliabide ekonomiko nahikorik ez izatearen egiaztatzea **zenbait agiri aurkeztuz egin beharko da**, Diru-sarrerak bermatzeko errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 29.1. artikulua araberaz:

h) Eskaera aurkeztu den hilabeteko diru-sarreraren edo etekinaren zinpeko aitortpena, baita bizikidetzaren unitateko kide guztien ondarearena ere. Zinpeko aitortpen horri honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

- Bankuko kontuak eta tituluak zertan diren erakusten duten bankuko agiriak.
- Ondasun higiezinak edukiz gero, Jabetzaren Erregistroak emandako ondasun higiezinaren egiaztatzea, edo ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordainagiria (landa-ondasunei edo hiri-ondasunei dagokiena).
- Besteren kontura diharduten langileen kasuan, hileko azken nominaren fotokopia, eta, hala behar badu, baita lan-kontratuarena ere.
- Pentsiodunen kasuan, eskuratutako azken pentsioaren ordainagiriaren fotokopia edo eguneratutako pentsioa dela erakusten duen Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren egiaztatzea.
- Langabetuak badira eta langabezia-sorospena edo prestazioaren bat jasotzen badute, prestazioaren edo sorospenaren azken ordainagiriaren fotokopia; edo INEMen ziurtagiria, egungo prestazioa edo sorospena zein den egiaztatzea.
- Aldian aldiko beste prestazioen kasuan, azken ordainketaren ordainagiriaren fotokopia, laguntza arautzen duen hitzarmena, edo laguntza horri dagokion ebazpena aurkeztu beharko du.
- Enpresaburuen edo profesionalen kasuan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpenaren fotokopia.

Gainera, eskatzaileek edo Administrazioak beste dokumentu batzuk eransteko aukera aurreikusten da³.

l) Hala dagokionean, eskatzaileak bidezkoztat jotzen dituen eta espedienteari gaineratu nahi dizkion agiriak.

m) Hala dagokionean, Administrazioak, baldintzak betetzen direla egiaztatzea, eskatu nahi dituen beste agiri batzuk.

³ Artikulu honetan: Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 16,1 o) eta p) letretan ere beste dokumentu batzuk gehitzeko aukera aurreikusten da.

Hala ere, Lanbidek, egokitzen dituen agiriak eskatzeko duen eskumena baliatuz, **ezinbesteko agiritzat** jotzen du jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria. Bakarrik agiri hori aurkeztuz betetzen da baliabide nahikorik ez izatea egiaztatzeke betekizuna.

Zenbait udalek, urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 13.1. artikulua aplikatuz, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren III. kapituluko 2., 3. eta 4. ataletako aurreikuspenak aplikatzen dituzte, eta Lanbidek egiten duen moduan, jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria eskatzen dute gizarte larrialdiko laguntza eskatzen dutenen baliabide ekonomikoak eta ondasunak egiaztatzeke.

BIGARRENA: Jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiriek, baliozkotzat jotzeko bete behar dituzten betekizunak

Dokumentu hori eskuratzea ez da erreza etorkinentzat, aurretik azaldu dugun moduan, bereziki, zenbait kasutan. Hala, zenbait pertsonen herrialdeetan edo herrietan, administrazio publikoetako egiturak oso ezberdinak dira, eta administrazio horietako erregistroek ez dituzte betetzen gutxieneko baldintzak informazio zehatza bermatzeko. Batzuetan, jatorrizko herrialdeetan ez dago ondasunen ziurtagiri bat herrialde osoan ondasunik ez izatea egiaztatzeke, eta beraz, eskatzaileek, ziurtagiri baliokide bat aurkezten dute, zenbaitetan, prestazio ekonomikoak ematen dituzten administrazioek nahikotzat jotzen ez dutena.

Horrez gain, eskatzaileek zailtasunak izaten dituzte bidaiatzeko eta beste herrialde batzuetara joateko edo beraien izenean ziurtagiria ematea eskatzeko, horrek guztiak dituen kostu ekonomiko guztiekin.

Agiri hori onartzeak gainera, baldintza hau bete behar du: autentikotasuna egiaztatu behar da, Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 323.2. artikulua aplikatuz. Artikulu horren arabera, atzerriko dokumentu baten baliozkotasuna nazioarteko hitzarmen bat egotearekin edo ez egotearekin lotuta dago.

Lehenengo kasuan, hitzarmen horrek zehazten du dokumentuaren frogagarritasuna.

Bigarrenetan, bi betekizun bildu beharko ditu, dokumentu publiko izateko:

- Agiria eman edo egitean, herrialde horretako betekizunak aztertu behar dira, agiriak epaiketean froga osoa eratu ahal izateko.
- Agiriak Espainian egiazkotzat jotzeko legeztapena edo apostilla, eta beharrezkoak diren gainerako betekizunak izan beharko ditu.

Oro har, atzerriko agiri publiko oro, alde aurretik legeztatu beharko da, agiria igorri den herrialdean eskumena duen Espainiako Bulego Kotsularrean, edo, hala badagokio, Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioan, honako bi kasuetan salbu: agiriak, 1961eko urriaren 5eko Hagako Hitzarmenarekin bat, herrialde

igorleko agintaritzaren apostilla erantsita duenean, hala, atzerriko dokumentu publikoak legeztatzeak betekizuna indargabetuz; edo, Nazioarteko Hitzarmena betez, agiriak legeztapenik behar ez duenean.

Bitarteko diplomatikoen bidez dokumentua legeztatzea da izapidetze hori errazteko hitzarmenak sinatu ez dituzten estatuek emandako atzerriko dokumentu publikoak legeztatzeak aplikatzen den prozedura. Orokorrean, agintaritzaren bakoitzak, legeztapen bat egiten du dokumentu bakoitzari dagokionez. Dokumentuaren jatorrizko herrialdean kontsulatukoa ez den agintaritzaren batek emandako agiria baldin bada, bakarrik jatorrizko herrialdeko Estatuaren Atzerriko Ministerioak eta estatu horretako ordezkari diplomatiko espainiarrek edo ordezkari kontsularrek esku hartuko dute. Espainian zuzentasunez egiaztatutako agintaritzaren kontsular batek emandako dokumentua bada, legeztatzean bakarrik Espainiako Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioaren legeztatzearen atalak esku hartuko du. Gainera, Espainian ondorioak izango dituzten atzerriko agiriak gaztelaniara itzulita egon beharko dira⁴.

Une honetan, Lanbidek ondasunik ez izatea egiaztatzen duen dokumentazioa legeztatuta egotea eskatzen du eta erreferentzia gisa Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren martxoaren 11ko 56/2016 (3. zk.) epaia hartzen du.

Kontua da, legeztatzeak egiaztatu egiten dituela sinatzailearen identitatea eta aginpidea eta atzerriko dokumentuaren izaera publikoa, **baina, ez da ezer aurreikusten edukiari buruz eta agiriak ordenamendu juridikoan izan ditzakeen ondorioei buruz**, eta hori, agiria jasotzen duen organoak ebaluatu behar du administrazio prozeduran. Garrantzitsua da hori aztertzea, izan ere, zaila da baliozkotasuna izateko dokumentua benetakotzat jotzea legeztatzean, agiriaren edukiari buruz aurrez ezer onartzen ez denean, eta are gehiago, nazioarteko harremanetan ohikoa ez den agiria izanik eta nazioarteko hitzarmenetan agertzen ez den agiria izanik.

Azaldu dugun moduan, legeztatutako eta itzulitako agiri hori eskuratzea zaila da, hainbat arrazoi direla-eta; ez da bide diplomatikotik eskatzen den ohiko agiria. Hala, Espainian kokatutako atzerriko ordezkariak zenbait dokumentu ematen dituzte, besteak beste, zigor aurrekariaren ziurtagiriak eta tokiko erregistro zibiletan inskribatutako ekimenen ziurtagiriak, Legeztatzearen Atalak zuzenean legeztatzen

⁴ Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak bakarrik Espainian ministerioak izendatutako zinpeko itzultzaile edo interprete espainiar batek egindako itzulpen ofizialak onartzen ditu (itzulpen horiek ez dira legeztatze behar eta baliozkoak dira bestelako izapidetze osagarriak egin behar izan gabe), edo bestela, baita atzerriko espainiar ordezkariaren batek egin dituen edo berretzat jotzen dituen itzulpenak ere (itzulpen horiek legeztatze egin behar dituzte dagokion ministerioaren atalak). Azkenik, onartu egingo dira baita ere dokumentua eman duen estatuko Espainiako ordezkariaren diplomatikoa edo kontsularrak egindakoak (itzulpen horiek legeztatze egin beharko dituzte dagokion ministerioaren atalak). Informazio hori Atzerri Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren webgunean eskuratu dugu. Eskuragarri hemen:

<http://www.exteriores.gob.es/Portal/es/ServiciosAlCiudadano/SiEstasEnElExtranjero/Paginas/Legalizaciones.aspx>

dituenak⁵. Kontuan hartuz munduko herrialde eta herritarren arteko trukatzeko gehitu egin direla, estatu askok hitzarmenak sinatu dituzte herritarrei horrelako izapidetzeak egitea errazteko eta ahalbidetzeko.

Era berean, atzerriko zenbait ordezkariak diplomatikoei edo kontsularrei baimena eman zaie beraien herrialdeko jatorrizko dokumentuen autentikotasun ziurtagiria emateko dokumentu horiek legeztatu ezin daitezkeenean, barneko legeriak hala xedatzen duelako edo herrialdeko inguruabar bereziak edo salbuespenezkoak direla-eta, besteak beste Irakekin eta Uzbekistanekin gertatzen den moduan.

Bestalde, herrialde batzuetako salbuespen egoerak direla-eta, aldagaiak ezarri dira bide diplomatikoko legeztatzeen katean, herrialde bakoitzeko berezitasunak kontuan hartuz⁶.

Europako araubidean ere, Europar Batasunean zenbait agiri publiko sinplifikatzea dago aurreikusita. Europako Araubideak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko uztailaren 6ko 2016/1191 UE araubideak, zeinak herritarren zirkulazio librea errazten duen, sinplifikatu egiten ditu Europar Batasunean zenbait dokumentu publiko aurkezteko betekizunak.

Araubide horrek, estatu kidearen agintaritzek emandako eta beste estatu kide batean aurkeztu beharreko dokumentu publiko batzuetarako legeztatzea edo

⁵ Hauek dira herrialde horiek: Afganistan, Argentina, Armenia, Bolivia, Brasil, Cabo Verde, Txile, Kolonbia, Ekuador, Eslovakia, Estonia, Georgia, Hungaria, Jordania, Letonia, Mexiko, Peru, Portugal, Dominikar Errepublikak, Errumania, Errusia eta Turkia. Estoniaren eta Turkiaren kasuan, Europako Kontseiluaren 63. Hitzarmena aplikatuz. Hitzarmen hori Europako 1982ko ekainaren 1eko hitzarmena berresteko izan zen, eragile diplomatikoei eta kontsularrek emandako dokumentuak legeztatzea ezeztatzeari buruz, Londresen egin zena 1968ko ekainaren 7an. Horren arabera, dokumentu horiek ez ditu legeztatu behar Espainiako Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak, hemen jasota dagoen moduan: Atalaren informazioa 2019ko abuztuaren 2an eguneratu zen. Hemen eskuragarri: <http://www.exteriores.gob.es/portal/es/serviciosalciudadano/siestasenelextranjero/documents/listado%20de%20paises%20que%20pueden%20emitir%20directamente.pdf>

⁶ Afganistango dokumentu publikoak, Madrilgo Afganistango enbaxadak legeztatuak, eta enbaxada horrek bere zerbitzu zentraletatik jasotzen dituen informazio oinarrian egiten dituen ziurtagiriak, Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak legeztatzen ditu.

Libiako dokumentu publikoak, Madrilgo Libiako Enbaxadak legeztatutakoak, Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak legeztatuko ditu, Tripolin kokatutako Espainiako Enbaxada berriz ere ohiko moduan lanean hasi arte, eta beharrezko aldaketak egin arte.

Siriako dokumentu publikoak Beiruten kokatutako Espainiako Enbaxadan legeztatzen dira. Enbaxadak jakinarazi du siriar guztiek Erregistro Zibilaren menpeko ziurtagiriak eta/edo pasaporteak Damaskoko Zentro Nagusian eskuratu ditzaketela, Barne Ministerioaren menpekoa den zentroan alegia. Yemengo dokumentu publikoak, Madrilen kokatutako Yemengo Enbaxadak legeztatuak, Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak legeztatuko ditu irizpidea aldatzen denera arte. Sanako negozioen a. i. arduradunak "ez du baimenik dokumentu yemendarrak legeztatzeke, Legeztatzeen Ataleko informazioaren arabera, 2019ko abuztuaren 2an eguneratu zena". Eskuragarri hemen:

<http://www.exteriores.gob.es/Portal/es/ServiciosAlCiudadano/SiEstasEnElExtranjero/Documents/Lista%20de%20paises%20que%20pueden%20emitir%20directamente.pdf>

antzeko izapidetzea salbuesteko eta bestelako izapideak sinplifikatzeko sistema bat ezartzen du⁷.

Azken finean, aurreko analisiak argi uzten du oso konplexuak direla jatorrizko herrialdeko agintaritzek emandako dokumentuen autentikotasuna administrazio prozedura batean egiaztatzeke bete beharreko izapidetzeak. Konplexuagoa da oraindik ere jatorrizko herrialdeko ondasunak ziurtatzea, agiri hori ez baita ohikoa nazioarteko harremanetan, eta herrialdearen administrazio egituraren arabera, aldagaiak eta datu ezberdinak egon daitezkeelako. Gainera, dokumentuak legeztatzeke eta itzultzeke egin beharreko izapidetzeak egiteak ez du esan nahi dokumentuaren edukia edo sortu daitezkeen ondorioak onartuko direnik, hori guztia, administrazio prozeduran dokumentua jasotzen duen organoak ebaluatu behar duelarik. Inguruabar horietan, eskatzaileek dokumentua eskuratzea errazteko eta Nazioarteko Itunen eta Akordioaren [azaroaren 27ko 25/2014 Legea](#) Agiriaren aurreikuspenekin bat eginez (horren bitartez arautzen da autonomia erkidegoek eta tokiko erakundeek araubidezkoak ez diren nazioarteko itunak sinatzeko aukera, 43-48 eta 53. artikulak), Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Sailak eta udalek (dokumentu hori aurkeztea eskatzen dutenek), beharrezko jarduketak eta izapidetzeak egin ahalko lituzkete, araubide horretan aurreikusitakoak, eskatzaileek dokumentu hori eskuratzea errazteko, eta horretarako, jatorrizko herrialdeetako agintaritzekin itunak egin beharko lituzkete.

Aurreko guztiaz gain, arazo horrek zaugarritasun edo gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen eragiten die, jatorrizko herrialdeak utzi dituztenak miseriatik ihes egiteko eta eskubideak, askatasunak edo bizitza duinak disfrutatzeko aukerak falta zituztelako, eta beraz, jatorrizko herrialdean baliabide ekonomikoak dituztela pentsatzea ez da arrazoizkoa. Gizarte zaugarritasun egoera honetan, dokumentu hori eskuratzea oso zaila den prozesua da, eta kostu ekonomiko altuak ditu, eta badirudi, horrek guztiak ez duela justifikazio logikorik ezta zuzenik.

HIRUGARRENA: Zenbait pertsonen jatorrizko herrialdeko ziurtagiria aurkeztearen betebeharra zalantzan jartzeko arrazoiak

Hala ere, Lanbidek eta zenbait udalek, erakunde autonomo honetan aplikatzen diren irizpide berdinak aplikatzen dituztenek, agiri hori aurkezteko betebeharra

⁷ Hori guztia, estatu kide bateko agintaritzek emandako dokumentu publikoari aplikatzen zaie, zuzenbide nazionalarekin bat eginez, eta beste estatu kide bateko agintaritzetan aurkeztu behar dira. Dokumentu horien helburu nagusia honako egitateetako bat edo gehiago ezartzea da: a) jaiotza; b) pertsona bat bizirik dagoela; c) heriotza) izena; e) ezkontza, ezkontzeko gaitasuna eta egoera zibila barne; f) dibortzioa, banaketa judiziala eta ezkontza indargabetzea), erregistratutako izateko lotura, izateko lotura baten kide gisa inskribatzeko gaitasuna eta erregistratutako izateko lotura bateko kide izaera), izateko loturaren erregistroan lotura deuseztatzea, banaketa judiziala edo erregistratutako izateko lotura indargabetzea), filiazioa), adopzioa), helbidea edo egoitza), nazionalitatea), zigor aurrekaririk ez izatea, betiere, nazionaltasuna duen estatu kide bateko agintaritzek horri buruzko dokumentu publikoak Europar Batasuneko herritar bati emanez gero. Hori guztia ez zaie aplikatzen hirugarren herrialdeetako agintaritzek emandako dokumentu publikoari edo estatu kide bateko agintaritzek egindako zenbait dokumenturen ziurtatutako kopiei. Ez zaio aplikatuko ezta ere estatu kide batek beste estatu kide bateko agintaritzek emandako dokumentu publikoaren edukia ondo ondo juridikoak aintzatesteari.

ezartzen dute prestazio ekonomikoak izapidetu ahal izateko. Administrazio publikoek, jakinik izapidetze konplexua dela, sei hilabeteko epea ezartzen dute agiri hori aurkezteko. Epe horretan aurkezten ez bada, **baliabide ekonomiko nahikorik ez izatearen betekizuna ez dela betetzen ulertzen da eta aurreko sei hilabeteetan emandako prestazioak itzultzea eskatzeko prozedura hasten da.**

Arartekoak lehentasunezko zat jotzen du administrazio publikoek egiaztatzea prestazio ekonomikoak emateko legezko betekizunak betetzen direla. Zalantzarik gabe, EAeko aurrekontu publikoetan gizarte laguntzei zuzendutako zuzkidura ekonomikoa zorrozki kontrolatu behar dute eragile publikoek. Baina jasotako keaxak aztertu ondoren, Arartekoak, bere funtzioak egikaritzuz, zalantzan jartzen du baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea egiaztatzeke betebeharra, horretarako ***conditio iuris*** agiri hori aurkeztu behar delarik, edo eraginkortasuneko legezko betekizuna izatea bidaia arriskutsuak eta mingarriak egin dituzten pertsona horientzat. Prestazioak eskatzen dituzten etorkin gehienak miseriatik edo muturreko pobreziatik ihesean iritsi dira helmugako tokira, lan eginez beraien bizi baldintzak hobetzeko asmoarekin. Enplegurik edo lan egiteko administrazioaren baimenik ez izateak eta beharizan egoerak, aldi batean prestazio ekonomikoak eskatu behar izatea sortzen dute, eta kasu gehienetan, prestazioak jasotzeko aldi hori laburra izaten da. Zehazki, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Politika Sailaren datuen arabera, onuradun guztien arteko atzerritarren ehunekoa ez da aldatzen; hala, 2020ko urtarrilean guztira 52.343 pertsonak jaso zituzten prestazioak, eta horietatik 14.651 pertsona ziren atzerritarrak, hau da, % 27,99. 2019ko urtarrilean 14.952 izan ziren prestazioak jaso zituzten atzerritarrak, eta 2017ko urtarrilean 17.466. Egindako azterketen arabera, txandakatze ehunekoa handiagoa da bertako biztanleen artean, eta beraz, prestazio ekonomikoak zailtasun une baterako laguntzak dira, enplegua aurkitzen dutenera arte eskatzen dituztenak. Lanbidek lan orientazioan eta prestakuntzan egindako esfortzuak oso emaitza onak izaten ditu horri dagokionez.

Bukatzeko, zenbait udaletan dokumentua aurkezteko betebeharra ezartzen da, albo batera utzita eskatzaileak espainiar nazionalitatea izatea, eta horrenbestez, beste zailtasun bat gehitzen da jatorrizko herrialdeko administrazio publikoekin harremanak izateko jatorrizko nazionalitateari uko egin zaion kasuetan, hori egitea derrigorrezkoa delarik espainiar nazionaltasuna eskuratzeko ia espediente guztietan.

LAUGARRENA: Araubidean jasotako betekizunaren edukia eta izaera; administrazio publikoek eskatzen duten dokumentazioa, bete beharrekoa.

Dokumentuaren edukia eta egiazkotasuna ezberdina da estatu guztietan, kontuan hartuz administrazio egitura, zergadunaren informazioa edo eskumenak dituen administrazioak ondasunen titularrei buruz duen informazioa. Zenbait estatutan, informazio oso gutxi izaten dute. Gainera, guztiek ez dute sistema fiskal berdina, edo batzuetan ez dituzte izaten jabetzako erregistro ofizialak. Horregatik, badirudi ez dela dokumentu fidagarriena baliabiderik ez izatea egiaztatzeke.

Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16 c) artikuluan, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.3. artikuluan eta urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 5.1 e) eta f) artikuluan jasotako aurreikuspenaren arabera, baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea egiaztatzeke beste froga bitarteko batzuk daude, eta ez bakarrik agiri zehatz bat. Legegileak ez zuen ezarri legeztatutako ondasunen ziurtagiria aurkeztea lege ezarritako *conditio iuris* baldintza zenik; hori, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko *sine qua non* baldintza da. Araubideak ezartzen du administrazio publikoek egokitzen jotzen dituzten agiriak eska ditzaketela baldintzak betetzen direla egiaztatzeke, baina ez du zehazten agiri jakin hori eskatu behar dutenik diru-sarrerak bermatzeko errenta edo gizarte larrialdiko laguntzak jasotzeko. Horri dagokionez, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 29.1. h) artikuluan, diru-sarrera, etekin edo ondasun falta dagoela adierazten duen zinpeko deklarazioarekin batera aurkezteko agiriak zehazten dira, eta ondasunen ziurtagiria bakarrik interesatuek ondasun higiezinak dituztela deklaratu dutenean aurkeztu behar dutela dago jasota. Alderantziz, interesatuak deklaritzen badu ez duela ondasun higiezinik, ez du legezko betebeharririk ziurtagiria aurkezteko.

Halaber, xedatzen da interesdunek beste agiri batzuk aurkezteko aukera dutela.

Horri dagokionez, [39/2015 Legea](#) Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015, urriaren 1ekoa, aurrerantzean APAPE) 28. artikulua honako hau ezartzen du berariaz:

“...Administrazio-prozeduran interesdun direnek ekarritako dokumentuak.

1. Interesdunek administrazio-prozedurara ekarri beharko dituzte administrazio publikoek aplikatzekoa den araudiaren arabera eskatzen dituzten datu eta dokumentuak. Komenigarritzat jotzen duten beste edozein dokumentu ere ekar dezakete interesdunek...”

Aurreikuspen hori, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 29.1.l) artikuluan l) eta m) ataletan eta urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 16.1) artikuluan o) eta p) ataletan jasota dago.

Hortaz, administrazio publikoek beste dokumentu batzuk eska ditzakete betekizunak betetzen direla egiaztatze aldera, baina, Arartekoaren iritziz, botere hori moldatu egin daiteke, proportzionaltasun printzipioa kontuan izanik eta frogak bere osotasunean baloratuz, ondasun higiezinak eta baliabide ekonomikoak nahikoak ote diren zehazteko. Beste frogabide batzuk daudenean dokumentu bat aurkeztu ezin ahal izateak ez luke eskubide bat edo gizarte larrialdiko laguntza ekonomikoak emateko aukera baldintzatu behar.

Kontuan hartu behar da, jurisprudentziak esan duen moduan, administrazioak ezin duela arbitrarioki edozein agiri eskatu; aitzitik, ebazpena emateko oinarritzat hartu behar diren datuak zehazteko ezinbestekoak direnak soilik eska ditzake. Horri

buruzkoa da Auzitegi Gorenaren 1997ko uztailaren 7ko Epaia⁸, zeinaren arabera *"...la omisión de datos y errores exige, según el artículo 71⁹ que el órgano administrativo competente se lo haga saber al interesado, señalando dichos errores y omisiones y concediéndole un plazo de diez días para la subsanación, con la advertencia de que si no lo hiciera se archivará el expediente con los efectos prevenidos en el artículo 42, pero como advierte la Sentencia de esta Sala (antigua Sala Cuarta) de 16 de marzo de 1988, la Administración no puede arbitrariamente exigir cualquier documentación, sino aquella que sea indispensable para fijar los datos en base a los cuales ha de dictarse la resolución y esos datos han de ser ignorados por la Administración, ya que si ésta los conoce, por haber presentado el interesado los documentos que se le piden, no tiene alcance la indicada consideración, tratándose de datos suficientes para resolver y para dictar la correspondiente resolución..."* (ZO4).

Hortaz, administrazio publikoek ezin dute eskuragarri dituzten datuei buruzko informazioa eskatu, ezta **gaiaren funtsaren gainean adierazpen bat egiteko nahitaezkoak ez diren agiriak ere**.

Dokumentu bat ezin aurkezteak ez luke eskubidea ematea baldintzatu behar. Pertsonen administrazio prozedura bati hasiera emateko ahalmena dute euren eskaerak legeak ezartzen dituen irizpideak betetzen baldin baditu. Lanbidek eta udalek, prozedura amaitu arte izapidetu beharko dute, eskaerak eta aurkeztutako dokumentuek modu argian, zehatzean eta zalantzarik gabe egiaztatzen badute eskatutakoak ez dituela betetzen araudiak eskatzen dituen aurrekontu materialak, hau da, eskariak ez baditu eskari modura kontuan hartzeko irizpideak betetzen, eta ez bada gabezia konpondu.

Hala ere, aipatu dugun moduan, Lanbidek prestazioa ematen du, nahiz eta ondasunen ziurtagiria ez aurkeztu, baina era berean, 6 hilabeteko epean agiria aurkezteko betebeharra zehazten du, eta horri buruz, garrantzitsua da gogoraraztea administrazio publikoek eskatu ditzaketen eta "beharrezkoak ez diren" dokumentuak eskatzeari aplikatu beharreko jurisprudentzia.

Bestalde, Arartekoaren ustez, sei hilabete ondoren, dokumentua lortzea ezinezkoa izan delako laguntza deuseztatu beharrean, interesgarria litzateke frogaldi bat irekitzeko aukera ematea, APAPEn 77. artikulua eta hurrengoak aplikatuz, lehenengo atalean hauxe dagoelarik jasota: "Zuzenbidean onargarri den edozein frogabidez egiazta daitezke prozedura erabakitze garrantzizko diren egitateak. Frogabideak balioesteko irizpideak Prozedura Zibilar buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean aurreikusitakoak dira". Edo 2. atalarekin bat eginez, aukera hau egongo litzateke baita ere: "Epe jakin baterako frogaldi bat irekitzea". Horren

⁸ Espainia. Auzitegi Gorena. Administrazioarekiko Auzien Sala. 1997ko uztailaren 7ko Epaia [linean]. ECLI:ES:TS:1997:4804. Hemen eskuragarri:

<http://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/57da6a47664ec3ec/20030906>

⁹ Artikulu hori Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legetik hartua da.

bitartez, administrazioak zalantzak argituko lituzke bizikidetzaren unitateak baliabide ekonomiko nahikorik ote duen edo ez egiaztatzeko, eta dokumentua eskuratzeko izandako zailtasunen berri izango luke baita ere. Ulertu beharra dago, ziurtagiri hori (eskuratzeko ezinezkoa dena) ezin denean aurkeztu, eskubide bat egikaritzeko edo mantentzeko baldintza bat ez-betetzea sortzen dela, eta horrek ez ditu betetzen logika juridikoko arauak.

III. ONDORIOAK

Laburbilduz, azaldutako esparruarekin bat eginez, diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria eta gizarte larrialdiko laguntza eskatzen duten atzeritarrei jatorrizko herrialdeak emandako ondasunen ziurtagiria eskatzeak, jatorrizko herrialdean ondasunen eta baliabideen titulartasunik ez duela egiaztatzen duena, *conditio iuris* gisa, ez du araubide babesik.

Ziurtagiri hori agiri berria da nazioarteko harremanetan, eta ondorioz, beharrezkoa da administrazioak modernoak izatea, zerga sistemak informatizatuta dituztenak, eta herritar guztien datuak dituztenak eta tokiko eta estatu mailako ondasun higiezinak eta baliabide ekonomikoak buruzko erregistroak dituztenak, eta hori, badirudi ez dela horrela etorkinen jatorrizko herrialde guztietan. Bestalde, gaur egunera arte, ez dago nazioarteko lankidetzaren hitzarmen batik informazioaren, dokumentuen eta erregistro publikoen edukia eta jatorria arautzeko. Bakarrik dokumentuak legezkatzea dago aurreikusita, beste agiri publikoak bezala, bigarren gogoetan azaldu dugun moduan, baina legezkatze horrek, bakarrik sinatzailearen identitatea eta agintea eta atzerriko agiriaren izaera publikoa egiaztatzen du, **eta horrek ez du esan nahi edukia edo ordenamendu juridikoan izan ditzakeen ondorioak onartuko direnik**, hori guztia, Lanbidek edo eskaria izapidetzen duen udalak ebaluatzen dutelarik. Hala, etorkinei eskatzen zaiena neurritz kanpokoa da.

Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak agiri hori aurkeztu beharrezko ondorioz, kontuan hartu gabe bestelako frogak bitartekoak, eta ezinbestekoa ez delarik diru-sarreraren errentaren edo gizarte larrialdiko laguntzen eskubidea emateko (ez duelako *conditio iuris* baldintza betetzen, esan dugun moduan), erakunde honek hauxe proposatu du: agiri hori eskatzearen egokitasunaren inguruan edo araubidezkoak ez diren nazioarteko akordioak sinatzearen inguruan hausnartu behar da, Nazioarteko Itunaren eta Akordioaren azaroaren 27ko [25/2014 Legea](#) agiri aplikatuz.

Horri dagokionez, baliteke interesatuek aurkeztutako dokumentuak aztertu ondoren, agiri hori aurkeztu beharra egotea, eta horrek arrazoizkoa egingo luke horrela jokatzeko, baina eskari gehienetan, aurkeztutako dokumentazioa aztertuta ondorioztatzen da eskatzaileak zaurgarritasun egoeran daudela, eta agiriak zorrotasunez aztertzean, baliabide logiko eta arrazoizkoen bidez ondorioztatzen ahal da eskatzaileek ez dutela nahiko baliabide ekonomikorik eta ondasunik. Alderantziz, kasu horietan jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria aurkezteko eskatzeak ez

du beharrezko araubide babesik, eta neurritz kanpoko eskakizuna da, migrazio mugimenduen inguruabarrak kontuan hartuz eta zenbait estatutan duten informazioa dela-eta, izan ere, estatu askotan ez dago administrazio modernorik edo erregistro ofizial zorrotzik.

Lanbidek eta udalek, prestazio ekonomikoak emateko betekizunak betetzen direla egiaztatu behar dute, legezko betebeharrak etikoa baita. Alabaina, batzuetan, dokumentu jakin bat eskatzeak, prestazioaren titularra izateko betekizunak betetzen direla egiazta dezaketen eta aurkeztu diren gainerako dokumentuak kontuan hartu gabe, oinarritzko beharrei eta gizarteratze prozesutik eratorritako gastuei lotutako gastuak estaltzeko behar besteko diru-sarrerarik ez duten bizikidetzaren unitateetako kideei prestazioak ukatzea eta indargabetzea eta itzultzeko eskatzea ekartzen du. Horiek dira, hain zuzen ere, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen bitartez babesten direnak: *“Lege honen xedea da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea, eta, horren barruan, beharrezko prestazio ekonomikoak eta tresnak izateko eskubidea arautzea, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten”* (1. artikulua).

Edonola ere, Arartekoak Lanbideri askotan helarazitako iritzia bera dauka, hau da, hausnarketa bat egin beharko litzateke etorkinei dokumentu horiek eskatzeari dagokionez. Izan ere, pertsona horietako batzuek jatorrizko herrialdeak utzi dituzte indarkeria edo txirotasunarengandik ihes edo gatazka historikoek edo hondamendi naturalek suntsitutako lurraldeetatik ihes. Jatorrizko herrialdeak uzteko arrazoi horiek erakusten dute nekez izan ditzaketela baliabide ekonomikoak, albo batera utzita errefuxiatu izatera edo babes subsidiarioa eskatu edo eskuratu izana. Hausnarketa horrekin batera, eraginkortasunari buruzko ebaluazioa egin beharko litzateke, beste egitate batzuekin eskuratzen duten informazioa kontuan hartuz, besteak beste, administrazio egituren ezberdintasunak eta estatuetako erregistro ofizial ezberdinak, ziurtagiri horiei buruzko nazioarteko hitzarmenik ez egotea edo izapideen konplexutasuna, oztupoak eta agiria eskuratzeak atzerritarrentzat dituen kostu ekonomikoak. Dokumentu hori aurkeztea, gainera, ez zaie pertsona guztiei berdinean eskatzen, izan ere, jatorrizko herrialdeko inguruabarren arabera da, edo gizarte larrialdiko laguntzak eskatzen diren udalerriaren arabera, edo eskatzaileek nazionalitate espainiarra dutenaren edo ez dutenaren arabera.

Arartekoaren ustez, bakarrik eskatu ahalko litzateke interesatuek deklaratu dutenean jatorrizko herrialdean ondasun higiezinak dituztela edo ekidin ezinezko inguruabarretan, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, uste denean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo gizarte larrialdiko laguntzaren eskatzaileak edo onuradunak jatorrizko herrialdean ondasun higiezinak edo baliabide ekonomikoak dituela. Kasu guztietan eta eskari guztietan agiri eguneratua eskatzea neurritz kanpoko da, eta Arartekoaren iritziz, ez du beharrezko araubide babesik.

Migratzean, etorkinek egoera larriak bizitzen dituzte, eta horren ondorioz, dokumentu hori eskatzearen beharraren inguruko hausnarketa sakona egin behar da. Etorkinen inguruabar larriak, askotariko txostenak eta testigantzak kontuan ez hartzeak, zalantzarik gabeko errealitatea albo batera uzten dela erakusten du.

Gogoeta ondorio horiek are garrantzitsuagoak dira gaur egun, SARS-COVID 19 koronabirusak eragindako osasun krisia bizi dugun honetan, izan ere, arazoak gehitu dira jatorrizko herrialdeetan dokumentuak eskatzeko eta eskuratzeko.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egin nahi die Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari eta EAEko udalei:

GOMENDIO OROKORRA

Aurreko gogoetekin bat eginez, Lanbidek eta EAEko udalek hausnar dezatela atzerritarrek egindako eskarrietan jatorrizko herrialdeko ondasunen ziurtagiria aurkezteko betebeharrari buruz, izan ere, ez da "*conditio iuris*" prestazio ekonomikoak emateko eta mantentzeko.

Agiri hori aurkezteko eskatzea bakarrik espedienteetan zantzuak baldin badaude eskatzaileak baliabide ekonomikoak dituenaren inguruan eta horiek bateragarriak ez baldin badira prestazio ekonomikoak ematearekin.

ararteko

Herriaren Defendatzailea

Defensoría del Pueblo